BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4808

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 23koa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpena egiteko eta ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Fundiguel, S.A. enpresak Iurretako udalerrian sustatutako burdinurtzeko instalazio berriaren proiekturako.

AURREKARIAK:

2007ko irailaren 6an, Aitor Elorriaga Fdez. de Arroiabe jaunak, Fundiguel, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Iurretako udalerriko burdinurtzeko proiekturako ingurumenaren gaineko eraginaren prozedura izapidetzen hastea eskatu zuen, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, Euskal Herriko Ingurumena babesteari buruzkoan, eta ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretuan, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzkoan xedatutakoari jarraiki.

2007ko irailaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzak txostena eskatu zien hainbat erakunderi, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketaren norainokoa eta maila zehaztearren. Zehazki, Iurretako Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzari egin zitzaien kontsulta.

2007ko urriaren 26an, Fundiguel, S.A. enpresak burdinurtzeko proiektuaren proiektu teknikoari eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterketari dagozkion agiriak aurkeztu zituen, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena eta ingurumeneko baimen bateratua lortzeko. Agiri horien artean Fundiguel, S.A. enpresak Iurretako Udalari jarduerak hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasuna zehazteko egindako eskaeraren kopia zegoen.

2008ko ekainaren 30ean eta abuztuaren 11n, proiektuan bi aldaketa egiteko asmoa jakinarazi zion Fundiguel, S.A. enpresak ingurumen-organoari, hurrenez hurren moldekatze mekanikoko lerroan erabili nahi zuen pinturari eta isuri atmosferikoak husteko sistemen diseinuari buruz.

2008ko azaroaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzak ingurumeneko baimen bateratuaren eskaerarekin batera aurkeztu behar ziren agirien norainokoa eta xehetasun-maila zehazteko burututako izapidearen emaitza jakinarazi zion Fundiguel, S.A. enpresari, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa barne.

2008ko azaroaren 11n Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2009ko otsailaren 2an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2009ko otsailaren 20an emandako ebazpen bidez, jendaurrean jarri ziren 30 egun baliodunen apean, Fundiguel, S.A. enpresak sustatutako proiektua eta ingurumenean duen eraginaren azterlana, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2009ko martxoaren 17an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2009ko apirilaren 19an, eta ondoko auzokide bakoitzari

jakinarazpena bidali zitzaion. Halaber, formatu elektronikoan zegoen espedientearen oinarrizko agiria herritarren esku jarri zen, orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren web-orrian.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak, 2009ko apirilaren 29an, txostena eskatu zien Iurretako Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari eta Uraren Euskal Agentziari, eta, 2009ko maiatzaren 26an, berriz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, eta espedientean ageri den emaitza jaso zen.

2009ko ekainaren 15ean, sustatzaileak ingurumen-organoak aurrez eskatutako argibide osagarriak aurkeztu zituen, ebazpen honen proposamena prestatzearren.

2009ko uztailaren 21ean, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fundiguel, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2009ko uztailaren 23an, Fundiguel, S.A. enpresak idazkia igorri zuen, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jendaurrean jartzeko aurreikusitako izapidea bideratua zegoela adierazteko, eta Iurretako udalerriko Arriandi industrialdean sustatutako burdinurtzeko lantegi berriari ingurumeneko baimen bateratua emateko eskatu zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. Fundiguel, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: saneamendu sistema bateratura isurtzeko baimena, hondakinak sortzekoa, isuri atmosferikoen baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Aipatutako aginduak aplikatuz, Fundiguel, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Iurretako Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusien, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren, Uraren Euskal Agentziaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren txostenak.

Bestalde, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar dute nahitaez Legearen 1. eranskinean jasota egon eta Euskal Autonomia Erkidegoan burutu nahi diren plan eta proiektu publiko zein pribatuek. Prozedura hori ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenarekin amaitzen da, direlako proiektuak gauzatzeko edo, behar denean, baimentzeko, emango den ebazpenaren aurretik egingo dena. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa ere aplikatzekoa da urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren, proiektuen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko legearen testu bateginari buruzkoaren I. eranskinean jasotako proiektuei.

Era berean, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11.4 artikulua aplikatuz, autonomia-erkidegoek ahaleginak egingo dituzte ingurumeneko baimen bateratuaren barruan dauden ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko erkidegoko araudian ageri diren jarduerak edota beste figura batzuk sartzeko, betiere horrelakorik eska badaiteke, eta horretarako eskumena autonomia-erkidegoari badagokio.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen aurreikuspenak betez, Ingurumen Organoak neurriak hartu ditu ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio arloko jarduerak ingurumeneko baimen bateratuko prozeduraren barruan txertatzeko. Alde horretatik, prozedura horren izapideetan proiektuak izan ditzakeen ondorio guztiak modu integratu batean aztertu dira, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren eta uztailaren 1eko 16/2002 Legean jasotako ingurumeneko arauen ikuspegitik, proiektuaren bideragarritasuna zehazteko. Integrazio hori garbi islatzen da ingurumeneko baimen bateratua emateko ebazpen-proposamenaren aurretik proiektuaren gainean egiten den balioespen orokorrean. Proposamenean bezala, ebazpen honetan sartuta dago aipatutako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozesua. Horretarako, proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren aldeko adierazpena egiten du bere lehenengo atalean, eta, ingurumen-ondorioetarako soilik, aukeratutako kokapenean proiektua bideragarria dela aipatzen du; proiektua zer baldintzatan gauzatu behar den ere ezartzen du, uztailaren 1eko 16/2002 Legea aplikatuz ezarriko zaizkion neurri zuzentzaileekin bat.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera, eta aplikatzeko den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia hartu da kontuan: «Reference Document on Best Available

Techniques in the Smitheries and Foundries Industry», 2005eko maiatzekoa; «Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems», 2001eko abendukoa, eta «Reference Document on Best Available Techniques for Emissions from Storage», 2006ko uztailekoa.

Espedienteko txostenak aztertu eta proiektu osoaren ingurumen-ebaluazioa egin ondoren, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan aurreikusitako jendaurreko izapidea bete zen, sustatzaileari ebazpen-proposamenaren zirriborroa igorri zitzaion, eta Fundiguel, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Organo honek du ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena eta ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskumena, urriaren 25eko 340/2005 Dekretuak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak xedatutakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko uztailaren 21ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onartzen duena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Erregelamendua onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fundiguel, S.A. enpresak Iurretako udalerrian sustatutako burdinurtzeko lantegi berriaren ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldeko adierazpena egitea, ebazpen honen hirugarren atalean ezarritako baldintzekin.

Bigarrena.– Egoitza soziala Iurretako udalerriko Arriandi auzoan eta IFK: A-48780134 zenbakia duen Fundiguel, S.A. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea Iurretako udalerriko burdinurtzeko instalazio berrirako, ebazpen honen hirugarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. eranskinean jasota dago, hain zuzen ere 2.4 kategorian, Burdina-metalen galdategiak, eguneko 20 tonatik gora ekoizteko ahalmena dutenak.

Fundiguel, S.A. enpresaren instalazioak 6.520 m^2-ko lur zati bat okupatuko du Iurretako udalerriko Arriandi auzoko industrialdean.

Instalazioak urtean 4.500 tona ekoizteko ahalmena du, eta tamaina ertaineko (50 kg – 2500 kg) pieza bereziak edo pieza konplexuak fabrikatzen ditu.

Jarraian instalazioan garatuko den galdatze-prozesuak dituen eragiketa nagusiak deskribatuko dira:

1.– Galdaketa: Galdatzeko eragiketa maiztasun ertaineko eta nukleorik gabeko indukzio-labe elektrikoetan egingo da. Labeetan sartzen den karga metalikoa automobilgintzarako osagaiak fabrikatzeko industriako lingote eta txatar garbiez osatuta egongo da, itzulera propioez gain. Labeak guztiz karenatutako kargatzeko bi orgaren bidez beteko dira, eta metal likidoaren zipriztin-arriskuak ezabatzeko, eta aldi berean labe bereko keak biltzeko beharrezko babes-elementuekin.

Burdina likidoa egokitzeko ferroaleazioak erabiltzea eskatzen duten kasu batzuetan (burdina esferoidalak), metal likidoa tratamenduko edo tratamendu/isurtzeko zalira isuri ondoren egingo da, horretarako egokitutako galdaketa-plataformaren ondoko eremu batean. Guneak keak biltzeko kanpai bat izango du galdaketa-plataformako bertako xurgapen-sistema orokorrera konektatuta.

2.– Moldekatzea eta argintza: Hondarrez moldekatzeko bi lerro egongo dira piezen espektro ahalik eta handiena estaltzeko:

● Moldekatze mekanikoa: «lubetako» moldekatze horizontaleko sistema guztiz automatizatu bat da, moldeak egiteko beharrezko elementu guztiak dituena (moldekatzea, desmoldekatzea, gogortzea, pintatzea, lehortzea, moldea muntatzea eta ixtea).

● Lurgaineko moldekatzea: moldekatze mekanikoko instalazioaren ahalmena gainditzen duten piezak «lurgaineko moldekatzea» izeneko eskuzko sistema baten bidez fabrikatuko dira.

Moldekatze mekanikoan eskatutako tamaina txikiko arren fabrikazioa kanpoan egingo da. Instalazioan «lurgaineko moldekatzean» eskatutako tamaina handiko arren fabrikazioa baino ez da egingo.

Lantegia hareak aglomeratzeko sistema bakar batekin (erretxina furanikoa eta katalizatzailea) jarduteko konfiguratu da, bai moldeetarako, bai lantegian fabrikatutako arretarako.

Moldekatze mekanikoko lerroaren diseinuak lehortzeko labe edo tunel bat instalatzea aurreikusi du, aurreikusitako pinturak edo erregogorrak «ur-oinarrikoak» baitira. Hala ere, labe horren instalazioa bi urte barrurako aurreikusi da, eta tarte horretan «alkohol-oinarriko» pinturak erabiliko dira «ur-oinarriko» pinturen ordez.

3.– Isurketa: burdina likidoa edukiera aldakorreko zalien bidez eskuz isurtzeko sistemen bidez isuriko da moldeetara. Garraioan zein isurtzean, zaliak estalita egongo dira.

4.– Hoztea: desmoldekatu aurreko hozteko denborak pieza isuriaren tamainaren arabera zehaztuko dira (modulu termikoa), moldea hautsi aurretik beharrezkoa delako pieza galdatuen egitura-eraldaketa guztiak egin direla ziurtatzea.

Moldekatze mekanikoaren kasuan, hozteko biltegira eramango dira lubetak, eta bertan egongo dira azken desmoldekatzera arte.

«Lurgaineko moldekatzean» molde isuriak isurtze-zuloan bertan utziko dira hozten. Hoztu ondoren, bi lerroetarako komuna den desmoldekatzeko kabinara eramango dira garabi bidez.

5.– Desmoldekatzea: pieza galdatuak ondoren garbitu eta egokitzeko, hoztu ondoren moldeak hausten dira, piezak fabrikatzeko formak ezabatzeko, eta multzoko harea bereizten da. Desmoldekatzeko gailua guztiz karenatutako parrilla bibratzaile batez osatuko da, eta xehekiak xurgatzeko sistema izango du.

6.– Akaberak eta azken ikuskapena: akabera-guneak bi etapa berezitu ditu. Batetik, granailatzea bera, eta bestetik, ondorengo garbiketa eta betetze/elikatzeko sistemak eta bizarrak ezabatzea.

Fabrikatutako pieza guztiak granailatu egiten dira, baina lantegian «lurgaineko moldekatzeko» piezena egingo da soilik. Granailatzeko makinak xehekiak xurgatzeko sistema izango du. Akaberako eragiketek eskuzko bizar-kentze bat hartzen dute barne, berariazko, egokitutako eta tokiko xurgapen-sistemak dituen gune batean egingo dena.

Azken ikuskapenean partikula magnetikoak eta ultrasoinuak erabiliko dira.

7.– Moldekatzeko harea berreskuratzea: Berreskuratze mekanikoko sistema bat da, zirkuitu itxian eta garraio pneumatikoarekin jardungo duena. Harea birsortzeko dorreak mahuka-iragazkia izango du hauts-xurgapenak kontrolatzeko. Harearen % 95 berreskuratuko dela kalkulatu da.

Erabiliko den energia-iturri nagusia hornidura-sare orokorreko energia elektrikoa da, eta 10.000 kWh/urte kontsumituko da.

Halaber, 169.000 Nm^3/urte gas natural kontsumituko da tratamendu-zaliak berotzeko, lehortzeko labean eta ur bero sanitarioa lortzeko, eta 14,5 m^3/urte gasolio orgatila jasotzaileen jardunerako.

Lantegi berriak udaleko hornidura-sareko ura erabiliko du hozte-sistemek eta hornidura-sistema orokorrak eskatutako kontsumoari zerbitzua emateko, eta guztira 4.129 m^3/urte kontsumituko da.

Isuri atmosferikoak sortzen dituzten eragiketa nagusiak hauek dira: urtzeko labeak, kargatzeko orgak, labeen zepak kentzeko puntuak, burdina likidoa zalietan egokitzea, hoztea, desmoldekatzeko kabina (desmoldekatzea eta aurre-birsorkuntza), moldekatzeko harearen birsorkuntza mekanikoa, granailatzea eta bizar-kentzea. Eragiketa horietako isuriak zarratu egingo dira, eta kanpora eramango dira arazketa-sistemak (mahuka-iragazkia) dituzten bi isurketa-fokuren bidez. Hustu, hoztu eta desmoldekatzeko eragiketetan, ekipo higikorren bidez bilduko dira isuriak, prozesuko eremuaren zabalera dela medio. Isuri horiei molde pintatuak lehortzeko labekoak gehituko zaizkie, eta hori abian jarri ondoren, 1. eragiketatik 5.enera aurreikusitako biltzeko eta arazteko sistemaren bidez (1. fokua) tratatuko dira.

Bestetik, jarduerak industriako hondakin-urak (hozte-sistemen eta konpresoreen purgetakoak), kutsadura arrasta dezaketen euri-urak eta hondakin-ur sanitarioak (komun eta aldageletakoak) isuriko ditu. Korronte horiek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatutako Nerbioi Beherea-Ibaizabaleko saneamendu-sistema orokorrera isuriko dira. Bereizita, kutsadura-arrasterik sortzen ez den eremuetako euri-ur garbiak isuriko dira.

Lantegian sortutako hondakin nagusiak labeetako gasak arazteko prozesuan (1. prozesua) sortutako galdaketako xehekiak, berreskuratu gabeko moldekatze-harea erabiliak (5. prozesua) eta akaberako (6. eragiketa) eta hareak berreskuratzeko (7. eragiketa) eragiketetako xurgapeneko xehekiak dira.

Proiektuak teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak hartzen ditu barne: txatar-parkea iragazgaiztea, lehengaien biltegiratze zarratua, txatar garbiak kargatzea, maiztasun ertaineko eta nukleorik gabeko indukzio-labe elektrikoak erabiltzea, galdaketan, desmoldekatzean eta hareategian isuriak xurgatu eta araztea, aglomeratzaile- eta erretxina-kontsumoa murrizteko neurriak, harearen % 95 berreskuratzea, harearen berreskuratze mekanikoa, granailatzeko instalazioan biltzea eta araztea, isuri barreiatuak murrizteko neurriak, «ur-oinarriko» pinturak erabiltzea, zarata murrizteko neurriak, eta hondakin-urak bereizteko sareak, besteak beste.

Hirugarrena.– Fundiguel, S.A. enpresak Iurretako udalerrian sustatutako burdinurtzeko instalazio berriaren proiektua burutzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea.

A) Administrazioarekiko harremanak.

Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Fundiguel, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Proiektua burutzen hastea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 47.8 artikuluak aipatzen duen epea bi urtekoa izango da, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen

hasita. Ondorio horietarako, sustatzaileak proiektua gauzatzen hasteko aurreikusitako data jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, gutxienez hilabete lehenago.

C) Neurri babesle eta zuzentzaileak. Isurtzeko muga-balioak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz.

Proiektua burutzeko aurreikusitako aurrekontua eta baldintza-agiria ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa burutzeko obra-unitateekin eta prezioekin osatu beharko dira.

C.1.– Instalazioa eraikitzeko baldintza orokorrak.

C.1.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea:

a) Fabrika eraikitzearekin lotutako jarduketa guztiak, hala nola makina-parkea eta obra-hondakinak aldi baterako metatu eta gordetzeko eremuak, proiektuaren lur zatiaren barruan kokatuko dira.

b) Esparru horretatik kanpo ustekabeko eraginak sortuz gero, zuzentzeko eta leheneratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, aurrez ebazpen honen C.1.8 atalean adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

c) Makina-parkea eta obra-materialak aldi baterako biltegiratzeko eremua kontratistak egokitu beharko ditu, garatu nahi diren jarduerek ingurumenean sor ditzaketen eraginak gutxitzearren.

d) Gune horien mugak eta ezaugarriak obra-zuzendaritzak onartu beharko ditu, aurrez ebazpen honen C.1.8 atalean adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

C.1.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

a) Eraikuntza-fasea xehekiak drainatze-sarera isurtzea minimizatuz egin beharko da. Horretarako, ura bideratzeko tresnak eta solido esekiak atxikitzeko sistemak proiektatu eta egingo dira, horietan obren ondoriozko ur kutsatua biltzeko.

b) Obraren makina-parkera bideratutako azalera eta horren mantentze-eremua drainatze naturaleko saretik isolatuko dira. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango dituzte, lurzorua eta ura olio eta erregaien bidez kutsa daitezen saihesteko. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ez dira baimenduko adierazitako eremutik kanpo.

C.1.3.– Hauts-isuriak gutxitzeko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek erasandako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Pistak eta aldi baterako soil egongo diren eremuak ureztatzeko sistema bat egongo da.

b) Obra-eremuetako irteeran ibilgailuak garbitzeko instalazioak izango dira. Gailu horien ezaugarriak, eta kokaleku zehatza eta bildutako uren kudeaketa, ebazpen honen C.1.9 atalak aipatzen dituen agirietan jaso beharko dira.

C.1.4.– Zaratak, dardarak eta horien eraginak gutxitzeko neurriak.

a) Eraikitze-fasean, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko agirietan deskribatutako jardunbide egokiak aplikatuko dira, obra-makinen mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

b) Obretan erabiltzen diren makinek aire zabalean erabiltzen diren makinen soinu-isuriei buruz indarrean dagoen legeria bete behar dute, eta batez ere, aplikatzekoa denean, aire zabalean erabiltzen diren makina batzuek inguruan egiten dituzten soinu-isuriak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan ezarritakoa eta gainerako arau osagarriak bete beharko dituzte.

C.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obretan sortutako hondakinak (besteak beste, ebakiak prestatzeko eragiketakoak, enbalajeak, erreuseko lehengaiak eta garbiketa-kanpainan sortutakoak) apirilaren 21eko 10/1998 hondakinen Legean eta aplikatzekoak diren berariazko araudietan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Obran sortutako hondakin guztiak, horien baliotzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-baliotzaile baimendu bati igorri beharko zaizkio. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta aurrez horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada.

c) Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenean aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira. Horri dagokionez, eraikitze-proiektuak eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko azterlan bat hartuko du barne, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 4.1 a) artikuluan ezarritako edukiarekin.

d) Zabortegira eramateko hondakinak abenduaren 27ko Errege Dekretuari, hondakinak zabortegian utzita ezabatzea arautzen duenari, eta otsailaren 24ko Dekretuari, hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenari jarraituz kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiaren arabera karakterizatuko dira. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, 16. artikuluarekin eta 1999/31/EEE Zuzentarauaren II. eranskinarekin bat.

Jardueraren soberako materialak har ditzaketen betelanek otsailaren 24ko Dekretuan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte.

Materialak betelanetan uztea material horien eduki kutsagarriak otsailaren 4ko 1/2005 Legearen, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoaren I. eranskinean jasotako EBA-A ebaluazio-balio adierazleen azpitik badaude bakarrik baimenduko da.

e) Edozein inguruabarrengatik sortutako lur-soberakin guztiak edo zati bat sustatzaileak proposatutako helmugan ezin hartu balira, eta soberakin-andelak eraiki behar balira, betelanen proiektua idatzi behar litzateke, eta horren edukia otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak zehaztutakora egokituko da, eta baldintza hauek beteko ditu gainera:

- Aurreikusitako sarbideak, lehendik zeudenak edo egin beharrekoak.
- Andel bakoitzaren gehienezko hedadura seinaleztatzea.
- Andel guztietarako paisaia-leheneratze berezituaren diseinua.

f) Proiektu bat burutzeko beharrezko diren maileguetan, material hauek bakarrik erabili ahal izango dira:

● Obra honetan edo besteren batean hondeaketatik ateratako material naturalak.

● Eraikuntza eta eraispeneko hondakinen baliotzetik datozen agregakin sekundarioak.

● Arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatzearen ondoriozko zepa beltzak, aurrez baliotze prozesu bat igaro dutenak, otsailaren 18ko 34/2003 Dekretuan ezarritako baldintzetan. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoan arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatzearen ondoriozko zepa beltzak baliotu eta ondoren erabiltzeari buruzkoa da. Kasu honetan, une oro urpean egoten diren tokietan uztea saihestuko da, eta beste material geldo natural edo obren estrados-eremuetako betelanetan erabiltzea lehenetsiko da.

● Agregakin naturalak.

g) Hondakin arriskutsuak ontziratzeko, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duenaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak hartu beharko dira kontuan. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziak itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, jarioagatik edo lurrunketagarik edukia galtzea saihesteko.

Ontzi horiek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

h) Sortutako olio erabilia ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duenaren, eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duenaren arabera kudeatu beharko da.

Olio erabiliak kubeta edo segurtasun-sistema barruko andeletan gordeko dira aldi baterako, kudeatzaile baimenduak jaso arte, andel nagusia hausteagatik edo estankotasuna galtzeagatik olioak sakabana daitezen saihesteko.

i) Hondakinak kudeatzeko araudia betetzea errazteko, lan guztietan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Sistema horiek lan horien arduradunek kudeatuko dituzte, horiek izango baitira langileek sistemak zuzen erabiltzearen arduradunak. Bereziki, erregai eta produktuak biltegiratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz, ez dira inola ere sortuko efluente kontrolatugabeak.

Aurrekoaren haritik, berariazko eremu bat egokituko da olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak, etab. bezalako hondakin arriskutsuak biltegiratzeko instalazio estaliak jartzeko, eta horietatik bereiz, hondakin ez-arriskutsu eta geldoetarako berariazko edukiontziak jarriko dira. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, edukia jarioagatik edo lurrunketagatik galtzea saihesteko. Era berean, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak (bidoiak, eta abar) ezarriko dira obran zehar eta izaeraren arabera bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako garbigunean aldi baterako biltegiratu aurretik egingo da.

j) Obretan sortutako hondakinen ingurumeneko jarraipena jasotzen duen txostena egin beharko da, indarrean dagoen legerian jasotako hondakinak kontrolatzeko eta jarraipena egiteko agiriak barne hartuta.

C.1.6.– Paisaia-integrazioa.

Lantegi berria eraikitzeko proiektuak beharrezko aurreikuspenak izan beharko ditu lantegiari lotutako lursail eta instalazioetako paisaia egokitzeko, hori eremuan integratzea errazagoa izan dadin.

C.1.7.– Garbiketa eta obra-akabera.

Obra amaitu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotza egingo da, eta proiektuaren eragin-eremua obra-soberakinez guztiz garbi geratu beharko da.

C.1.8.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obra amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Gai horiei buruz baldintza-agiriak esleitzen dizkion funtzioekin lotutako obra-zuzendaritzaren ebazpenak aholkularitza hori egiten duten adituek txostena egin aurretik eman beharko dira.

C.1.9.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak ekintza-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko dira, eta obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu, aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda, eta lanak burutzeko programan txertatuko dira. Agiriak jarraian zehaztukoak dira:

● Kokapenari buruzko xehetasunak eta kontratistaren instalazioen guneak eta hondakinak aldi baterako biltegiratzekoak, ebazpen honen C.1.1 eta C.1.5 ataletan aurreikusitakoaren arabera.

● Ur-eroanbideen sareen eta solido esekiak atxikitzeko ebazpen honen C.1.2 atalean aurreikusitako gailuen xehetasunak eta kokapena.

● Ibilgailuak garbitzeko ebazpen honen C.1.3 atalean aurreikusitako gailuen xehetasunak eta kokapena.

● Obretan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko plana, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

C.1.10.– Jardunbide egokien kontrola obren garapenean zehar.

Obrak garatu bitartean jardunbide egokien kontrol bat egingo da, arreta berezia jarriz eragindako azalerari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako soberakinak barne), solido esekiak atxikitzeko gailuen funtzionamenduari, hautsa eta zarata egiteari, eta ebazpen honetan adierazitako beste alderdi batzuei.

C.1.11.– Obra-amaierako txostena.

Sustatzaileak obra-amaierako txosten bat igorri beharko du Ingurumen Sailburuordetzara. Obretan zehar sortutako gorabeheren berri eman beharko da bertan, eta baita ingurumenaren gaineko eraginaren azterketan eta ebazpen honetan jasotako neurri babesle eta zuzentzaileen betetze-mailaren, eta ingurumen-organoak hondeaketako materialak zuzen kudeatzeko eskatutako neurrien berri ere.

Txosten horretan proiektua burutzean sartutako aldaketa zehatzak, izan badira, zehazki dokumentatu beharko dira, horien ingurumen-ondorioen aldetik justifikatuz. Eraikitze-fasean zehar

garatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzak eta hondeaketako materialen helmuga zehatza ere jasoko dira, horien kuantifikazioari eta karakterizazioari buruzko datuak barne.

C.2.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

C.2.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

C.2.1.1.– Baldintza orokorrak.

Fundiguel, S.A. enpresaren lantegia ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

C.2.1.2.– Fokuak identifikatzea.

Fundiguel, S.A. enpresaren instalazioak ondorengo isurtze-fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
				Taldea	Epigrafea	X	Y
1	1-5 eragiketen isuriak: galdaketa, moldekatzea eta argintza, isurtzea, hoztea eta desmoldekatzea	13,5	2	B	2.3.1	527.802	4.781.204
2	6. eragiketaren isuriak: akaberak	5	0,5	C	3.12	527.789	4.781.207

Gainera, isuri barreiatuak sortzen dira materialak transferitzean eta maneiatzean eta ibilgailuen joan-etorrietan.

Aurrekoari kalterik egin gabe, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22.2 artikulua aplikatuz, eta Fundiguel, S.A. enpresak egindako proposamenari jarraituz, «ur-oinarriko» pinturak erabiltzeko eta lehortzeko labea instalatzeko betebeharretik aldi baterako salbuetsiko da; gehienez ere 2011ko abenduaren 31n jarriko da indarrean betebehar hori. Aldi horretan zehar, isuri barreiatu gehigarriak sortuko dira «alkohol-oinarriko» pinturekin moldeen akabera-eragiketak egitean.

C.2.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Foku zk.	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
2	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Aurrekoari kalterik egin gabe, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22.2 artikulua aplikatuz, lehortzeko labea instalatu eta abian jarri arte (2011ko abenduaren 31rako aurreikusia), 1. fokuaren CO eta NOX substantziei lotutako isurtzeko muga-balioak betetzetik salbuetsiko da aldi baterako.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

C.2.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute ebazpen honen C.2.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isuri barreiatuak murriztearren, biltegi guztiak zarratuta, edo estalkipean edo siloetan egongo dira, bideak ongi zolatuko dira, eta horien garbiketak egingo dira. Hustean, hoztean eta desmoldekatzean sortutako isuri barreiatuetarako xurgapen-sistema higikorra instalatuko da, bi bilketa-hartune 1. fokurako aurreikusitako bilketa- eta arazketa-sistemara konektatuta dituen karenatze batez osatua. Desmoldekatzeko instalazioa hormigoizko kabina baten bidez guztiz isolatuta egongo da, formak desegiteko eta hareak bereizteko piezen gainean egiten den bibrazioak sortutako partikula-isuriak biltzeko eta arazteko. Pabiloian ezingo da kanporako isuri ez-kontrolatuak sortzen duen aireberritzeko erauzgailurik instalatu.

C.2.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

C.2.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Burdinurtzea.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.51.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Urteko gehienezko bolumena	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	1. fluxua: ur sanitarioak	Komunak eta aldagelak	1.419 m^3	X: 527.745 Y: 4.781.180
2	2. fluxua: kutsadura arrasta dezaketen euri-urak	Hareak berreskuratzeko ekipoen eremua	419,5 m^3	X: 527.778 Y: 4.781.216
3	3. fluxua: purgak	Hozte-dorreak	0,3 m^3	X: 527.827 Y: 4.781.186
	4. fluxua: ur oliotsu tratatuak	Konpresoreen purgen olio-bereizgailua	0,1 m^3	
	5. fluxua: kutsadura arrasta dezaketen euri-urak	Gasak arazteko ekipoen eremua	183 m^3	

Isurketaren ingurune hartzailea Nerbioi Beherea-Ibaizabaleko saneamendu-sistema orokorra izango da kasu guztietan.

C.2.2.2.– Isurtzeko muga-balioak.

Azken isurketek «Nerbioi Beherea-Ibaizabaleko saneamendu-sistema orokorrera (Bilboaldea) hondakin-uren isurketak egitea eta araztea arautzen duen erregelamenduan» agertzen diren mugak bete beharko dituzte. Hona hemen transkribatuta:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Tenperatura	45 ºC
pH-a	6-9,5
Solido jalkigarriak	600 mg/l
Nitrogeno amoniakal erasokorra	129 mg/l
Nitrogeno amoniakala	300 mg/l
Animalia- edota landare-jatorriko olioak edota koipeak	500 mg/l
Olio mineralak	50 mg/l
Guztizko zianuroak	2 mg/l
Sulfuroak	2 mg/l
Sulfatoak	4 mg/l
Fenolak	50 mg/l
Artsenikoa	1,5 mg/l
Kadmioa	1,5 mg/l
Guztizko kromoa	7,5 mg/l
Kobrea	7,5 mg/l
Burdina	150 mg/l
Nikela	5 mg/l
Beruna	3 mg/l
Zinka	15 mg/l
Merkurioa	1,5 mg/l
Zilarra	1 mg/l
Toxikotasuna	50 equitox/m^3

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

C.2.2.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Fundiguel, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrol-kutxeta bat jarriko da aurretik isurketa baimendu bakoitzerako; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

C.2.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenarekin, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ustekabeko jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Sustatzaileak adierazitako hondakinak ondorengo ataletan jaso dira.

C.2.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

a) Adierazitako hondakin arriskutsuak:

● 1. prozesua: «Gas efluenteak araztea».

○ 1. hondakina: «Galdaketako jalkin xeheak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q09//R04//S25//C07//H14//A231/B3117.

– EHZ: 100909.

– Urtean sortutako kantitatea: 152 t.

Urtzeko labeetan sortzen diren gasak iragaztearen ondorioz sortzen da; konposizioan oxido mineral eta metalikoak dituzten hautsak (galdaketako xehekiak) dira.

Hondakina big-bagean biltzen da eta hondakin-biltegira eramaten da kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 2. hondakina: «Mahuka-iragazkiak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q06//D15//S25//C07//H14//A241/B3117.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 kg.

Gasak arazteko sistemako iragazkien mahukak aldatzean sortzen da; partikula metalikoak dituzten mahukak dira.

Edukiontzian biltzen da eta hondakin-biltegira eramaten da.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Hondakin ez-organiko bustiak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q05//D15//S34//C51//H05//A241/B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 160 kg.

Xurgatzaileak eta ehunkiak biltzean sortzen da; gai arriskutsuez bustitako trapuak, xurgatzaileak eta bestelako materialak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean biltzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Olio erabilia».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q07//R09//L08//C51//H05/06//A241/B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 t.

Hainbat makinatan olioa birjartzeko lanetan sortzen da; olio hidrauliko eta koipeztatzeko erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Safety-Clean disolbatzailea».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q07//R13//L05//C41//H3B/5//A241/B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 300 kg.

Gainazalak garbitzean sortzen da; disolbatzaile erabilia da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Berun/azidozko metagailuak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S37//C18/23//H14/08//A241/B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 30 kg.

Beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariazko eremuan.

○ 5. hondakina: «Merkuriozko botoi-pilak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q06//R04/13//S37//C05/10/16/22//H06/14 //A241/B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 kg.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da, eta eraginkorragoa denez, taldeka biltzen dira; merkurioa eta beste metal-oxido batzuk dituzten pilak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariazko eremuan.

○ 6. hondakina: «Lanpara fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S40//C16//H6/14//A241/B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 30 kg.

Merkurioa duten lanpara erabiliak aldatzeko eragiketetan sortzen da.

Otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, gailu elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera bilduko dira.

○ 7. hondakina: «Metalezko ontziak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q05//R12//S36//C51//H05//A241/B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; gai arriskutsuak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako eremuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 8. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: A48780134 /NIRI/2/8.

– Hondakinaren kodea: Q05//R03//S36//C51//H05//A241/B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 30 kg.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; gai arriskutsuak izan dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako eremuan biltzen da hondakin-biltegian.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeko, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duenaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak hartu beharko dira kontuan. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziak itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, jarioagatik edo lurrunketagarik edukia galtzea saihesteko.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute. Etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio,

arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipioei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Fundiguel, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Fundiguel, S.A. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duenaren, eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duenaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Fundiguel, S.A. enpresak PCB daukaten gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Fundiguel, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

m) Fundiguel, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bat bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Fundiguel, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta n) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Fundiguel, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

C.2.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

a) Adierazitako hondakin ez-arriskutsuak:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer eragiketari lotuta	Urtean zenbatetsitako ekoizpena (t)
Zepak	100903	Galdaketa	137
Hareak	100908	Desmoldekatzea	1.584
Xurgapeneko xehekiak	100910	Akaberak	152
Xurgapeneko xehekiak	100910	Moldekatzea eta argintza	1.584
Paper- eta kartoi-ontziak.	150101	Lehengaiak eta osagarriak hartzea	3
Ontzi nahastuak	150106	Lehengaiak eta osagarriak hartzea	10
Erregogorra	161104	Mantentze-lanak	71

b) «Hareak», «xurgapeneko xehekiak» eta «erregogorra» hondakinen kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela erabakitzen bada, ebazpen honen C.2.3.1 atalean jasotako neurriak aplikatuko dira.

c) C.2.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, «ontzi nahastuak» izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkideagoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

d) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

e) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

f) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Fundiguel, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, beharrezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

g) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegietan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

h) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

i) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta h) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

C.2.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Fundiguel, S.A. enpresak ebazpen honetako E.3 atalean jasotako neurriak (ezohiko jardunean aplikatzeko prebentzioari eta jarduketari buruzkoak), eta ebazpen honetako C.2.3 atalean jasotako neurriak (hondakinak biltegiratzeari buruzkoak) hartuko ditu.

Gainera, instalazioa abian jarri ondoren, edozein arrazoirengatik lurzoruak hondeatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako helmuga zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri behar dira material horiek atera aurretik, lanak onartu ahal izateko. Azterketa eta onarpena, hala badagokio, ebazpen honetako G atalean jasotako aldaketa-erregimenaren esparruan egingo dira.

C.2.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Fundiguel, S.A. enpresak ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko proposatutako neurriak ezartzeaz gain, merkataritza-etxe horrek beharrezko neurriak hartuko ditu instalazioak kanpoko ingurumenera B1 taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak ez transmititzeko. Taula urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren, azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratari buruzkoa, garatzen duen III. eranskinean dago, arau horren IV. eranskineko prozeduren arabera ebaluatutako zonabanatze akustikoari, kalitate-helburuei eta isuri akustikoei dagokienez. Muga-balio horiek ondorengoak dira:

Gune akustiko mota	Zarata-indizeak		
	$L_{k,d}$ (eguna)	$L_{k,e}$ (arratsaldea)	$L_{k,n}$ (gaua)
e) Gehienbat osasun, irakaskuntza eta kulturarako erabilera duten eta kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duten lurraldeko sektoreak	50	50	40
a) Gehienbat bizitegi-erabilera duten lurraldeko sektoreak	55	55	45
d) Gehienbat c) puntuan aurreikusitakoa ez den erabilera tertziarioko erabilera duten lurraldeko sektoreak	60	60	50
c) Gehienbat jolas eta ikuskizunerako erabilera duten lurraldeko sektoreak	63	63	53
b) Gehienbat industria-erabilera duten lurraldeko sektoreak	65	65	55

Egoitza mugakideak egonez gero, egoitza horien erabileraren arabera, instalazioak ezingo du III. eranskineko B2 taulan ezarritako muga-balioak (aipatutako urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskineko prozeduren arabera ebaluatutakoak) baino zarata-maila handiagoa transmititu.

Ezarritako zarata-immisioen muga-balioak errespetatzen direla kontuan hartuko da, aipatu IV. eranskinean ezarritako prozeduren arabera ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean, honako hau betetzen dutenean:

● Urteko batez bestekoek ez dituzte gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

● Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-etan gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

● Lkeq, Ti adierazlean neurtutako balioek ez dituzte 5 dB-etan gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko eremuetako zarata-maila.

D) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Fundiguel, S.A. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak (*)	Kontrolen maiztasuna
1	1-5 eragiketen isuriak: galdaketa, moldekatzea eta argintza, isurtzea, hoztea eta desmoldekatzea	Guztizko partikulak, konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta), karbono monoxidoa (CO) eta nitrogeno oxidoak (NO_x)	Urteroko neurketa
		Dioxinak eta furanoak	Neurketa lehen urtean zehar
2	6. eragiketaren isuriak: akaberak	Guztizko partikulak	Neurketak 5 urtean behin

(*) Horrela adierazten den fokuetan, ebazpen honen C.2.1.3 atalean isurtzeko muga-balioak ezarri diren kutsatzaileetarako, bestelako kutsatzaileak neurtuko dira, horien isuria erreferentziako balioen barrutian dagoela egiaztatzeko. Horrela, 1. fokuan dioxina eta furanoen isuria egiaztatuko da lehen jardun-urtean zehar, eta KOG isuria instalazioaren erabilera-epe osoan zehar, kasu honetan moldeak eta arrak lehortzeko labea abian jartzen denetik soilik; hori guztia ebazpen honen seigarren atalean ezarritakoari kalterik egin gabe.

b) Isurtze-fokuen kontrola isurien eta jardueraren ekoizpenaren egoera esanguratsuetan egin beharko da. Bereziki, 1. fokuan ezaugarri desberdinetako gas kutsatzaileen fluxuak elkartzen ez direnez, foku horren neurketek ondorengoak hartuko dituzte kontuan:

● Foku horri lotutako eragiketen jarduna aldi berekoa bada, lehenago ezarritako kutsatzaileen KEB bidezko neurketa egin beharko da aldi berean.

● Eragiketa horiek bereiz egiten badira, sortzen diren isuriak adina neurketa egin beharko dira, eta kasu bakoitzean jardunean diren eragiketei dagozkien parametroak neurtuko dira. Isurtze-fokuei lotutako eragiketetako inolako isuri ez da egiaztatu gabe geratuko. Ildo horretan, kontuan hartu behar da lehen urtean dioxina eta furanoen neurketa urtzeko labeen eragiketa egiten den artean egingo dela beti, eta KOG, CO eta NOx neurketak moldeak eta arrak lehortzeko labearen eragiketa egiten den artean egingo dela beti.

c) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat). Neurketak eta txostenak Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritakora egokitu beharko dira: IT-DPECA-EA-IPPC-11.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

D.1.2.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Metal likidoa	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak ● lingoteak	t
	Harea berreskuratua/metal likido ekoitzia	t/t
Energia kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa/metal likido ekoitzia	Kwh/t
	Gas naturalaren kontsumoa/metal likido ekoitzia	Kwh/t
	Gasolio-kontsumoa/metal likido ekoitzia	Kwh/t
	Energia-kontsumoa/metal likido ekoitzia	Kwh/t
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3
	Ur-kontsumoa/metal likido ekoitzia	m^3/ t
Uretara egindako isurketak	Kolektorera isuritako bolumena	m^3
Isuri atmosferikoak	Guztizko partikula-isuria	Kg
	Guztizko partikula-isuria/metal likido ekoitzia	Kg/t
Hondakinak	Arazketa-sistemetan jasotako xehekien kantitatea / metal likido ekoitzia	t/t
	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea/metal likido ekoitzia	t/t
	Hondakin arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin arriskutsuak	t/t
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea/metal likido ekoitzia	t/t
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t/t
	Sortutako hondakin ez arriskutsuen guztizko kantitatea/ sortutako guztizko hondakinak	t/t
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kop.	unitateak
IKS	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ Urtea

D.1.3.– Zarataren kontrola.

a) $L_{k'd}$, $L_{k'e}$ eta $L_{k'n}$ indize akustikoen kalkulu-metodoen bidezko lehen ebaluazio bat egingo da, instalazioaren ohiko jardun-egoera egonkorrean.

b) Jardun-fasean, Lkeq, Ti indize akustikoaren neurketa bidezko ebaluazioak egingo dira jarduera garatzen den lur zatiaren kanpoaldean, batez ere zarata etxe barruetara, eta egokia bada, inguruko lokal barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan, hiru hilean behin. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

c) Esandako ebaluazioak ebaluazio-erakunde aitortuek eta sustatzailearenak ez direnek egingo dituzte.

d) Ebaluazioak, kalkulu zein neurketa bidezkoak direla ere, eta dagozkien txostenak, urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren, azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratari buruzkoa, garatzen duenari buruzkoaren, IV. eranskinean ezarritako prozeduretara egokituko dira, zonabanatze

akustikoari, kalitate-helburuei eta isuri akustikoei dagokienez; eta baita Ingurumen Sailburuordetza honek jaulkitako jarraibide tekniko osagarrietan ezarritakora ere.

e) Atal honetako b epigrafeak aipatzen dituen neurketa-puntuak atal honen a epigrafean jasotakoaren arabera egindako ebaluazioaren emaitzak ikusi ondoren ezarriko dira. Horretarako, sustatzaileak puntu horien kokapenaren xehetasuna adieraziko du instalazioaren jardunaren lehen urteari dagokion zaintza-txostenean, ingurumen-organoak onar dezan. Onartu ondoren, ebazpen honen D.1.5 atalean aipatutako ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio ondoriozko informazioa.

D.1.4.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ebazpen honen hainbat ataletan ezarritako berariazko maiztasunaz gain, bidalketa urtean behin egingo da, beti martxoaren 30a baino lehen, eta ingurumena zaintzeko programaren emaitzekin batera, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostena aurkeztu beharko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

D.1.5.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan ezarritako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia--mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

E) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

E.1.– Lantegia gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

a) Lantegia gelditzeko eta abian jartzeko eragiketei eta programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sor ditzakeen isuriak eta hondakinak balioetsi beharko ditu enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena egin beharko du.

b) Hozte-zirkuituak husteko, protokolo hau jarraitu beharko da:

● Husteko gutxieneko denbora: 72 h.

● Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

● Putzuen hondoan pilatutako lohiak kendu eta hustea. Lohi horiek ezin dira isuri.

E.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituena. Hori dela-eta, Fundiguel, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko

uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

E.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako oinarrizko proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Besteak beste, olioak, gehigarriak, erretxinak eta hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzakeenez, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira. Zolen diseinuak efluenteak drainatzeko eta biltzeko gailuak izango ditu, kutsatzaileak ingurunera sakabanatzeko bideak saihestearren.

b) Biltegiratzea.

Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

Hauts-produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

c) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura saihesteko; halaber, ezarritako neurrien funtzionamendua egokia izan beharko da. Ihesak daudenean lurzorua (eta dagokionean, urak) babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapenerako eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua (eta dagokionean, urak) kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferaren eta ingurune urtarraren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, eta abar), eta ikuskapenerako eta kontrolerako sistemen egoera ona bermatzeko neurriak gehituko dira.

Era berean, hidrokarburo-bereizgailuak mantentze-lan egokiak izango ditu, garbitu eta bertan metatutako lohiak eta flotagarriak aldiro kenduz, eta horiek kudeatzeko beharrezko maiztasunaz erretiratuko dira, isurketaren kalitatea arriskuan jartzeko moduko mailetan pilatzea saihesteko.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura, ingurumenean eragin negatiboa izan dezaketen produktuen jarioak sakabanatzea saihestearren.

f) Jarduketa, gorabeheraren bat gertatuz gero.

Ingurunean eragin negatibo esanguratsuak eragin ditzaketen gorabeherak edo ezohiko jardunen aurrean jarduketa-protokolo bat izan beharko da. Protokoloak, gutxienez, gai hauek argi eta garbi zehaztu behar ditu gerta daitekeen ustezko gorabehera edo ezohiko jardun bakoitzarentzat:

- Jarraitu beharreko jarduketak, hurrengo atalean zehazten den jakinarazpena agintariei egitea barne.
- Jarduketen sekuentzia.
- Jarduketa bakoitzaren pertsona arduraduna(k).

Istripuz gertatutako isurketaren kasuan, isurketa berehala geldiaraziko da.

Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

g) Gorabehera gertatuz gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaera baten aurrean, sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari. Jakinarazpena, gutxienez, ondoko alderdiak adieraziz egin beharko da:

- Gertakari mota.
- Jatorria eta arrazoiak.
- Sortutako ondorioak.
- Zuzentzeko edo egoerari eusteko hartutako neurriak.
- Jarduketak egiteko epeak.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Iurretako Udalean.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketa edo isuriren bat egonez gero, SOS Deiaki eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer egunetan eta ordutan gertatu den.
- Iraupena.

● Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina, horren analisia barne.

● Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

● Eragindako kalteen balioespena.

● Hartutako neurri zuzentzaileak.

● Ezbeharra konpontzeko prebentziozko neurriak.

● Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

Era berean, sustatzaileak instalazioaren etengabeko prozesu batean aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak barne, gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari.

h) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

i) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

F) Isurien inbentarioa.

Urtean behin Fundiguel, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako inbentarioa landu eta eguneratzeko apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemaren bidez (www.eper-euskadi-net web orrian eskuragarri). Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Instalazioaren aldaketak.

Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Halaber, proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Legearen Testu Bateginari buruzko urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9 k) epigrafearekin bat.

Laugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honen hirugarren ataleko ondoko puntuetan ezarritako baldintzak betetzen direla:

- C.1.11. Obra-amaierako txostena.
- C.2.3.1 f) eta C.2.3.2 f). Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak.
- C.2.3.1 n) eta C.2.3.2 h). Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua.
- D.1.1 d). Isuri atmosferikoen erregistro-eredua.
- D.1.5. Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.
- E.1 a). Gelditzeko eta abiarazteko eragiketetan eta programatutako mantentze-lanetan sortutako isuri eta hondakinen balioespena.
- E.3 b). Produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudia betetzearen egiaztapena.
- E.3 c). Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua.
- E.3 d). Mantentze-lanen erregistro-eredua.
- E.3 e). Kubetak husteko protokoloa.
- E.3 f). Gorabeheretan jarduteko protokoloa.
- E.3 i). Suteen aurkako araudia betetzen delako egiaztapena.

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko ditu «as built» proiektua eta baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 30 (hogeita hamar) hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori luza daiteke justifikatutako arrazoiak direla medio eta horretarako sustatzaileak aldez aurretik eskaera eginez gero.

Bosgarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Seigarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Artikulu hori betetzeaz gain, ebazpen honen baldintzak, ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne, aldatu ahal izango dira, jardueraren sustatzaileak hala eskatuz gero, eta betiere behar bezala justifikatzen baldin badira. Halaber, ofizioz aldatu ahal izango dira, egoera hauetan:

● Araudi berria indarrean sartzea.

● Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berriei egokitzeko beharra, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

● Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzak edo sor daitezkeen ingurumenaren gaineko eraginei lotuta ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileetan akatsen bat egiaztatzen duten oharrak.

Zazpigarrena.– Fundiguel, S.A. enpresak ebazpen honen xede den instalazioan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zortzigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako laugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Fundiguel, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fundiguel, S.A. enpresari, Iurretako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Hamargarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamaikagarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 23a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.